

Denboraren makina

Nagore Irazustabarrena

Jainko bihurtu zen meteoritoa

WWW.PANORAMIO.COM



Ezkerrean, duela 3.000 urte meteorito batek Saaremaa uhartean sortu zuen krater nagusia; eskuinean, Thor jainkoaren irudia XVIII. mendeko Islandiako eskuizkribu batean.

SAAREMAA UHARTEA (EGUNGO ESTONIA), DUELA 3.000 URTE. 30 eta 80 tona arteko meteorito bat, Lurraren grabitateak erakarrita, atmosferan sartu zen eta Europa erdialde eta iparralde osoan ikusi zen suzko lorratza utzi zuen zeruan Berehala lehertu, zatitu eta zatietako batzuek Saaremaa jo zuten, hogeik kilometroko eztanda eraginez. Sei kilometroko erradioan basoak su hartu zuen eta kezko hodei erraldoiak eguzkia desagerrarazi zuen inguru haietan eta Ipar Itsasotik ikusi ahal izan zen hainbat egunetan. Krater nagusiak 22 metroko sakonera eta 110 metroko diametroa duen aintzira sortu zuen, Kaali aintzira.

Fenomenoa ehunka eta ehunka kilometroko erradioko eremuan bizi zirenek ikusi ahal izan zuten eta, azalpen arrazionalik ezean, jainkoei egotzi zieten gertakaria. Hala, sua, burdina eta Lurra gupidarik gabe jotzen zuten mailuak Europa iparraldeko erlijioak eta legendak kutsatu zituzten handik aurrera.

Finlandian, Louhi Pohjolako erregina maltzurak eguzkia lapurtu zuen eta

Ukko heroia eguzki berri bat sortzera bultzatu zuen. Baina eguzki berriak Lurra jo zuen, sute eta hondamendi izugarriak eraginez. Mende askotan Saaremaako kratera eguzkiak Lurra jo zuen puntutzat hartu zuten bertakoek.

Thor jainkoaren legendan ere meteoritoaren arrastoak ikusi ditu zenbait adituk. Thor tximistaren jainkoa da, Mjöllnir burdinazko mailuaz Lurra gogor kolpatzen duena eta zerua suzko gurdian zeharkatzen duena, meteoritoak bezalaxe.

Mailua burdinazkoa izatea ere ez omen da kasualitatea, meteoritoaren arrastoetatik luzaroan burdina ateratzen baitzuten, ezpatak, mailuak eta beste tresna batzuk egiteko. Tokiak esanahi erlijioso berezia zuelako eta burdinaren ustiapena babesteko harresi biribila eraiki zuten zuloaren inguruan.

Egun, harresiaren arrasto gutxi batzuk baino ez dira geratzen. Finlandian jainko zaharrak gurtzeari utzi zioten aspaldi, eta Marvel etxeko superheroi bihurtu da Thor; hori bai, komikietako pertsonaiak burdinazko mailua dauka oraindik eskuan.

WIKIPEDIA



Arrastoak

Palomaresi
buruzko museoa
egin nahi dute

1966ko urtarrilaren 17an, bi B-52 hegazkin estatubatuarrek airean talka egin zuten eta horietako batek lau lehergailu termonuklear bota zituen, Espainiako Palomares herriaren inguruan. Bik su hartu zuten, beste bat itsasoan erori zen eta azkena lehorrean geratu zen, lehertu gabe. Lehertuz gero, hamabist kilometroko kratera eta 60.000 hildako utziko zituen.

Orain, *The Wall Street Journal* egunkariak Palomaresek hondamenari etekina ateratzeko diezaiokeela iragarri du. Udallerriak museo bat eraiki nahi du eta horretarako sekretupean dauden materialak, argazkiak eta dokumentuak argitara emateko eskatu dio AEBetako gobernuari. Museoaren aitzakian, istripuaren benetako ondorioak zein izan ziren jakiteko aukera izango al dugu?



WWW.UAH.ES

Manuel Fraga, Espainiako Turismo ministroa, Palomareseko uretan bainua hartzen 1966an, inguruan eroritako bonbek arriskurik ekarri ez zutela frogatu nahian.